# EDITORIAL

## *Eta, azkenean, lehiaketa heldu da*

*KIROL eskalada, ekipamenduak, ziriak, spitak, zulagailuak, eta abar eztabaidan egon dira azken hilabeteotan. Hemendik aurrera hortxe izango duzue eskalada-lehiaketa ere, hemendik aurrera 87. urte hau lehiaketa estatu espaionolean sartu zenekoa bezala gogoratu beharko da.*

*Has bitez moldatzen mendizaleak eta alpinistak, ikas bezate kirol eskaladan ez dagoela beste helbururik zailtasunaren garaipena baino, urrunago heltzeko joko gimnastiko eta barnekoa baino,...*

*Eta, gutxi iruditzen al zaie? Ahantz bitzate erromantizismoak eta «alpinista heroi»-en istorio epikoak, eta adi egon bitez kirol eskalada zein ebolutibo eta dinamikoa gertatzen ari den.*

*Eta hemen lehiaketa; bere aurrerabiderako premia bezala, hobekuntza eta lankidetasunerako bide bat bezala, arrazoi berri bat eta ikuskizun berri bat bezala.*

*Maiatzean Eginon Euskadiko lehen norgehiagoketa izan zen, jendearen erantzuna oso ona izan zelarik. Aurretik ere izan ziren beste elkar ikuste batzu, Leivan eta Biglosen; gero Patones eta abar. Étxaurik egin du bere deialdia Irailerako eta beste asko gehiago izango da. Merkataletxeren batek partzialki laguntzen die bere eskalariei eta ekipo babestuak agertzen hasi dira. Nostalgikook nahi zein nahi ez, oso urrunera helduko den aktibitate baten dimentsio berria da, informabideek segituko eta bere ikusleak izango dituena.*

*Lehiaketak berak ez du ahituko eskaladaren mugagabeko edukia eta ez ohizko eskalariei beren izakera harrapatuko, baina azken katemaila emango dio eskaladari berau hertsiro «kirola» kontsideratzen denara hurbiltzeko. Eskaladak, aktibitate honetan, ahaztu egiten du mendizaletasuna eta ahanzkortasun zoriontsu horrek bere dimentsio propioa eta bilakabide propioari segitzea permititzen dio.*

*Mendizaleok, ez ikaratu! inork ez dizue kenduko zuon arloa!*

*Eskalariok, gertarazi! falta egingo dizue eta!*

## Y, al fin, llegó la competición

ESCALADA deportiva, equipamientos, clavijas, spits, perforadores, etc., han estado durante los últimos meses en la polémica. Desde ahora también va a estar ahí la competición de escalada, desde ahora habrá que recordar el año 87 como aquél en que se introdujo la competición en el Estado español.

Vayan haciéndose a la idea montañeros y alpinistas, vayan aprendiendo que no hay más finalidad en la escalada deportiva que la superación de la dificultad, que el juego gimnástico e interior para llegar más lejos... Y, ¿les parece poco? Olvídense de romanticismos e historias épicas de los «alpinistas héroes» y fíjense en la evolutiva y dinámica que la escalada deportiva está demostrando ser. Y aquí la competición; como necesidad para su desarrollo, como un camino para el perfeccionamiento y la cooperación, como una nueva razón y un nuevo espectáculo.

En mayo tuvo lugar en Egino la primera competición de Euskadi con una respuesta muy favorable. Otras confrontaciones habían precedido en Leiva y Riglos; luego Patones, etc., etc. Etxauri ha realizado ya su convocatoria para setiembre y vendrán muchas más. Alguna firma comercial patrocina parcialmente a sus escaladores y están comenzando a aparecer equipos sponsorizados. Es la nueva dimensión de una actividad que, queramos o no los nostálgicos, va a llegar muy lejos, va a ser muy seguida por los medios informativos y va a tener sus espectadores.

La competición no va a agotar por sí misma el contenido inmenso de la escalada ni va a arrebatar el sentido a los escaladores tradicionales pero va a proporcionarle el último eslabón para acercarla a lo estrictamente deportivo. La escalada se olvida del montañismo en esta práctica deportiva y es un olvido feliz que le permite seguir su propia dimensión y su propia evolución.

Montañeros, no os alarméis. Nadie os va a quitar vuestro terreno.

Escaladores, entrenad que os va a hacer falta.